



AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko ekainaren 5ean buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita bian, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dira:

- 1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2018ko maiatzaren 15ean buruturiko saioari dagokion akta.
- 2.- J.A.A., Gesalaga kalea 5ean, lehen A. kafetegia zen kanpoaldean terraza jartzeko (lehengo baldintza berdinetan) udal baimena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea Zestoako herrigunean autoak aparkatzeko arazoak daudela, obrak daude martxan eta horrek aparkalekuak kentzea ekarri du eta aipatutako arazoak direla-eta, ez da baimentzen terraza jartzea.
- 3.- J.O.U., A. erretegiaren ondoan duen txabola handitzeari buruzko kontsulta urbanistikoa egiten du. Handitzearen arrazoia egurra gordetzeko lekua izatea da. Erabaki da jakinaraztea proposaturikoa baimengarria dela eta baimena eman ahal izateko, Udal honetan proiektu teknikoa aurkeztu beharko duela.
- 4.- R.N.S.L, kiroldegiko obraren 2, 3 eta 4 zertifikazioak aurkezten ditu. Erabaki da ontzat ematea.
- 5.- E. 3ko J.ri, Elizkalea 3 eraikineko fatxada margotzeko eta andamioak jartzeko udal baimena ematea, akordioak ezartzen dituen baldintzen arabera.
- 6.- R.A.I.ri, Gurutzeaga kalea 1 2A etxean balkoia aldatzeko obretako udal baimena ematea, akordioak zehazten dituen baldintzen arabera.
- 7.- N.A.A.ri, Gesalaga kalea 8 1B etxean leiho eta ate berriak jartzeko obretako udal baimena ematea, akordioak zehazten dituen baldintzen arabera.
- 8.- J.I.A.ri, Gurutzeaga kalea 5 4.eskubia etxeako bainugelan bainuontzia kentzeko eta dutxa jartzeko obretako udal baimena ematea, akordioak zehazten dituen baldintzen arabera.
- 9.- F.I.Z., P. baserriaren jabea dela eta saltzekotan dabilela azaltzen du. Eskrituratan etxebizitza bezala azaltzen da, baina saldu aurretik, jakin nahiko luke bertan etxea egokitzeko aukerarik dagoen. Erabaki da jakinaraztea etxebizitza egon dela egiaztatzeko eskriturak kontsultatu direla eta baita artxibo historikoan ere. Etxebizitza egokitzea ontzat ikusten du. Hala eta guztiz, etxebizitza egokitzeko obraren bat egin behar bada, dagokion proiektu teknikoa aurkeztu beharko da Zestoako Udalean.
- 10.-E.L.A., E. baserriko teilatua berritzeko 2015eko urriaren eman zitzaion udal baimenaren epea luzatzeko eskatzen du. Horrekin batera, baserrian bainugela berria egiteko, sarrerako ateak berritzeko eta ur zikinak jasoko dituen putzu septikoa jartzeko



obretako udal baimena eskatzen du.

Ondorengo erabakiak hartu dira: E. baserriko teilatua berritzeko udal baimenaren epea luzatzea, eta baserrian bainugela berria egiteko, sarrerako ateak berritzeko eta ur zikinak jasoko dituen putzu septikoa jartzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

11.- J.L.E.A., Arroa Beheko Artzubia aldea ibardiaren berreskurapen eta hobetze lanen inguruko kamioi erregistroa aurkezten du, 2018ko apirilko hilabeteari dagokiona. Erabaki da izanaren adierazpena egitea.

12.- J.U.G., Uztapide plaza 2 3B etxebizitza segregatzeko, hau da, bi bizitzetan banatzeko baimena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea Uztapide plaza 2 eraikineko etxebizitza kopurua kontsolidatuta dagoela. Beraz, ez da segregatzeko baimenik ematen.

13.- J.A.L.ri, Uztapide plaza 4 1.eskubia etxean leihoberriak jartzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

14.- U.U.A., Zestoako Udalerrian, Urola ibaian dagoen presa kendu nahi dutela eta, lan horiek Udalean eskumean duen kontuetan izan dezakeen eraginari buruzko txostena eskatzen da. Zestoako Udaleko arkitektoak prestatuko du txostena.

15.- J.M.E.L., Ibañarrietako 32. poligonoko 42.partzelan nekazaritzako biltegia eta ardientzako artegia izango den ukuilua instalatzearen asmoaren inguruan kontsulta luzatzen du. Erabaki da Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentura bidaltzea kontsulta.

16.- G.D.A.B.A.D., Arroa Beheko biribilguneari eta autobus geltokiari buruzko idatzia igortzen du. Erabaki da jaso izanaren adierazpena egitea.

17.- I.S.I, Zestoako 21-030 partzelan ganaduarentzako ukuilua egiteko udal baimena eta jarduera lizentzia eskatu zituen, baina partzela horren lurra baso erabilerakoak dira. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Basozaintza Zerbitzuari belardi erabilera onartzeko eskatu zitzaion. Basozaintza Zerbitzuaren erantzuna aurkezten du, bertan belardi erabilera onartu daitekeela dio.

Zestoako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Eremuko Sailari proposatuko zion azter zezala NBPLSek ahalbidetzen duen ezohikotasuna aplikatzea. GFAk maiatzaren 16ko txostenean adierazi zuen ukuiluaren proiektu honek nekazaritza sektorean duen eraginari dagokionez, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSk 61. eta 62. artikuluetan ezarritako ezohikotasuna ziurtatzeko baldintzak eta egoerak betetzen direla.

Erabaki da jakinaraztea aurkezturiko obra eskaera baimengarria dela eta obrak egin aurretik, jarduera lizentzia tramitatu behar dela. Horrela, Udala jarduera klasifikatuaren tramitazioa martxan jarriko du.

18.- A.H.E, azken urteetan baso ateratzea dela eta sortu den arazoaren inguruan zenbat adierazpen egin ondoren, honakoa eskatzen dio Zestoako Udalari:

1.- GI-3730 errepidean dabilzan garraiolariari araudia betearaztea



ZESTOAKO UDALA

2.- Herritarron segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea errepidean zein herrigunean.

3.- Konponbide bat aurkitzen saiatzea garraio astuna herrigunetik ez igarotzeko.

Erabaki da ondorengoak jakinaraztea:

Lehena.- *“GI-3730 errepidean dabiltzan garraiolariei araudia betearaztea”*

GI-3730 errepidearen kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide sailari dagokio, eta honenbestez, administrazio honek baimentzen ditu bertatik igaro beharreko garraio astunak. Foru Aldundiko teknikariek harremanetan egon da Zestoako Udala azken asteetan eta baimenak baldintza hauetan ematen dituztela jakinarazi digute.

Bigarrena.- *Herritarron segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea errepidean zein herrigunean.*

2017ko irailaren 14an Zestoako Landa Bideen Erabilera erregulatzen duen ordenantza publikatu zen Gipuzkoako Boletín Ofizialean. Ikusirik egurzaleengan eragina zuela ordenantza berri honek, Zestoako Udala udalerrian piñudiak ateratzen ibiltzen diren enpresa ezberdinekin bildu zen legediaren nondik norakoak aztertzeko.

Seinaleak jartzeko Foru Aldundiko baimenak jaso ondoren, udalak Aizarnako 2 herri sarreretan goian aipaturiko seinaleak jarriko ditu eta azterketa egingo da, seinale horiek trafikoan duten eraginean. Herri Elkarteari ere bere iritzia eskatuko zaio, seinaleztepen neurri hauekin egoera aldatu den edo ez aztertzeko.

Hirugarrena.- *3.- Konponbide bat aurkitzen saiatzea garraio astuna herrigunetik ez igarotzeko.*

Zestoako Udalak Foru Aldundiko Errepide Sailarekin elkarlanean jarraituko du, egurra garraiatzen duten ibilgailuek herritarrengan ahal den eraginik txikiena izan dezaten. Baserritarrak, Aizarnako herriguneko herritarrak, egurzaleak eta inplikaturik gauden administrazio publiko ezberdinak elkarlanean lan egiten jarraitu behar dugu arazo hau ahalik eta hobekien kudeatzeko.

19.- T.S.S.L. Arroako N-634 errepidean, 32. puntuan dagoen A.S.L.ren izenean dagoen Erregaien Banaketa Zentroaren titularitate aldaketa eskatzen du. Erabaki da ontzat ematea aurkeztutako dokumentazioa eta titularitate aldaketa onartzea.

20.- I.I., Sasineneako industrialdean duten pabiloian motorren biltegiatze jarduera dutela dio, eta orain kontainerren muntairako jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea.

21.- M.S.F.A., Alonderoneko aldapako igogailuko obraren 1. zertifikazioa aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea.

22.- Zestoako Udalak jakin du, Gurutze Jubilatuen tabernan, M. izeneko masaje zerbitzua martxan dagoela. Honek ez dauka jarduera lizentziarik, ez jakinarazpenik aurkeztu udal honetan. Erabaki da bilera bat egitea Jubilatuen Elkartearekin jardueraren berri izateko.



23.- I.I.A., Foru plazan dagoen K. tabernaren kanpoaldean jartzeko hainbat eskaera egiten ditu: tabernako terrazan sei mahai gehiago jartzeko eskaera. Era berean, bi palet-silla eta beste mahai txiki bat jartzeko ere baimena eskatzen du; leiho haundiaren aurrean, torileko paretoko toldo azpian telebista jartzekoa eta sarrera atearen bi aldeetara bi altaboz txiki jartzeko baimena.

Ondorengo erabakiak hartu dira: ez da baimentzen sei mahai gehiago jartzea. Horrez gain, jakinarazten zaio Udalak antolatutako ekimenek lehentasuna izango dutela toril azpian; leiho haundiaren aurrean, torileko paretoko toldo azpian, telebista jartzeko baimena ematea eta ez da baimentzen sarrerako atearen bi aldeetara bi altaboz jartzea.

24.- I.U.B., L. baserriko ukuiluaren obra amaierako ziurtagiria aurkezten du eta lehen erabilerako lizentzia eskatzen du. Erabaki da obra amaierako dokumentazioa ontzat ematea eta ukuiluaren lehen erabilerako lizentzia ematea.

25.- J.M.I.G., Gurutzeaga kalea 3 behean dagoen U. janari-dendak hainbat arazo sortzen dizkietela azaltzen du: terrazara haize beroa joaten zaie, dendako irratia eta makinaren zarata, baita traspaleta eta ateak ere ateratzen duten zarata... Erabaki da jakinaraztea elikagai denda ireki zenean, aurretikazko komunikazioa aurkeztu zela ziurtagiriarekin batera. Ziurtagiri honetan indarrean zegoen zarataren legedia betetzen zela ziurtatzen zen. Zarataren legea betetzen dela bermatzeko, laborateri homologatu batek izenpeturiko neurketa egin beharko litzateke. Horregatik guztiagatik, dendako titularrak zarata neurtzeko proba egin beharko du.

26.- Zestoako Udalak jakin du J.I.A.k berriro simaurra bota duela Endoiabideko G. etxetik gertu dagoen errebueltan. Erabaki da interesatuari gogoraraztea maiatzaren 14an jakinarazitakoa.

27.- M.A.O.ri, Zubimusu kalea 3 eraikineko fatxada konpontzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, txosten teknikoa eta Hirigintza eta Obretako Batzordearen irizpena aztertu ondoren, erabaki du jakinaraztea:

28.- J.I.R.i., San Juan egoitzak Akuako bidean duen parkina egokitzeko obrak egiteko udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

Batzorde informatiboen bileren akten onarpena

2018ko maiatzaren 29an, Gazteria eta Kirol Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko maiatzaren 25ean, Ogasun Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko otsailaren 9an, Gizarte Ongizate Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

Alkatetza ebazpenak- Honako Ebazpenen berri eman da:

* 43 zk, E.S.L. L.M.O.U.ri A. baserriko teilatua eta fatxada konpontzeko obretako udal baimena ematen zaio.



ZESTOAKO UDALA

- * 44 zk - 77 zk, Iraetako Baratze Parkeko erabiltzileei erabilera lizentzia 2019ko apirilaren 3ra arte luzatzen zaie.
- * 78 zk, I.E.A.i Mardubidea 7ko L. etxearen sarrera eta garajearen aurrean asfaltoa botatzeko baimena ematen zaio.
- * 79 zk, I.D.E.S.A.U.ri Beduako Korta poligonoa eta Bedua jatetxearen artean kanalizazio berri bat egiteko obretako baimena ematen zaio.
- * 80 zk, E.S.L.ri udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia egieko lizentzia ematen zaio, EP 18 erreferentziadun bidea.
- * 81 zk, E.S.L.ri udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia egieko lizentzia ematen zaio, EP 18 erreferentziadun bidea.
- * 82 zk, A.K.L.S.L.ri udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia egieko lizentzia ematen zaio, 22 erreferentziadun bidea.
- * 83 zk, E.S.Coop-ri udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia egieko lizentzia ematen zaio, EP 27 erreferentziadun bidea.
- * 84 zk, J.E.A. etxez-etxeko langileari lanaldia %71,50era igotzen zaio, A.E.ren jubilazioaren ondoren geratu diren zerbitzuak bete ahal izateko

Galdera eta erreguak. Ez da egon

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an

Idazkaria,

O.e

Alkateak,